# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 1440

*EBAZPENA, 2024ko martxoaren 13koa, HABEko zuzendariarena, 2022. eta 2023. urteetan euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroan inskribatutako alta-inskripzio eta bestelako oharpenak argitara ematen dituena.*

Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroa arautzen duen 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak, Kultura sailburuarenak, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2022. eta 2023. urteetan euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroan jasotako oharpenak argitara ematea (Eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, bide administratiboa agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2024ko martxoaren 13a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

# ERANSKINA

## Homologatu maila aitortu zaien zentroen zerrenda

| Izena | Erreg. zenb. | Aginduaren data |
|---|---|---|
| Santurtziko AEK Euskaltegia | 144 | 2024-02-21 |

## Izen aldaketa izan duten zentroen zerrenda

| Izena | Erreg. zenb. | Izen berria | Ebazpenaren data |
|---|---|---|---|
| Bidasoako AEK Euskaltegia | 177 | Bidasoko AEK Euskaltegia | 2022-06-09 |
| Xaribari AEK Euskaltegia | 143 | Portugaleteko Xaribari AEK Euskaltegia | 2024-02-21 |

## Titulartasun aldaketa izan duten zentroen zerrenda

| Izena | Erreg. zenb. berria | Titularra | Ebazpenaren data |
|---|---|---|---|
| BAI&BY Araba eta BAI&BY Gipuzkoa | 801 | Behin Betiko S.L. | 2022-09-30 |

## Helbide aldaketa izan duten zentroen zerrenda

| Izena | Erreg. zenb. | Helbide berria | Ebazpenaren data |
|---|---|---|---|
| Debabe Udal Euskaltegia | 296 | Aita Agirre, 3-3.a, Elgoibar | 2022-02-11 |
| Herri Jakintza Euskaltegia | 32 | San Juan Harria plaza, 4, Irun | 2022-03-18 |
| Arrasateko Udal Euskaltegia | 21 | Nafarroa etorbidea, 2 (Kulturola eraikina), Arrasate | 2022-09-20 |
| Azpeitiko Udal Euskaltegia | 20 | Perez Arregi plaza, 1, Azpeitia | 2024-02-21 |